TODO EL ARTE ES CONTEMPORÁNEO
ARTE ORO GARAIKIDEA DA

CAPILLA
KAPERA

# GENTZ DEL VALLE

## BASATI / SALVAJE / WILD



EXPOSICIÓN
ERAKUSKETA

13 MAYO 2021 – 13 MARZO 2022
2021 MAIATZA 13 – 2022 MARTXOA 13

**MUSEO DE NAVARRA**
**NAFARROAKO MUSEOA**



MUDA/MUDA / 2021


Proyecto / Proiektua
Gentz del Valle

Organización y producción / Antolaketa eta ekoizpena
Museo de Navarra

Coordinación / Koordinazioa
Carmen Valdés Sagüés
Alicia Irurzun Santa Quiteria

Conservación / Kontserbazioa
Berta Balduz Azcárate

Transporte y montaje / Garraioa eta muntaketa
Moreno Vallés, TransportaArte, S.L.

Iluminación / Argiztapena
Félix Mendía Villanueva

Diseño gráfico / Diseinu grafikoa
Ken

Producción gráfica / Ekoizpen grafikoa
La Cartelería

Textos / Testuak
Gentz del Valle

Fotografías / Argazkiak
José Luis Larrión

Traducción / Itzulpena
Sección de Traducción del Gobierno de Navarra
Nafarroako Gobernuko Itzulpen Atala

Impresión / Imprimaketa
Idazluma Industrias Gráficas

Edición / Edizioa
Gobierno de Navarra.
Departamento de Cultura y Deporte
Nafarroako Gobernua.
Kultura eta Kirol Departamentua



© de la presente edición / argitalpen honena
Gobierno de Navarra, Pamplona, 2021
Nafarroako Gobernua, Iruña, 2021

© de los textos / testuenak
la autora / egilea

© de las fotografías / argazkiak
el autor / egilea



d.l. / l.g.
NA – 1173 – 2021


PORTADA / AZALA: TOCADO DE CHICA (ADOLESCENTE) / NESKA (NERABE) BATEN BURUKOA / 2005

**GENTZ DEL VALLE**

BASATI / SALVAJE / WILD

Con la belleza ante mí, yo camino.
Con la belleza tras de mí, yo camino.
Con la belleza sobre mí, yo camino.
Con la belleza debajo de mí, yo camino.
Con la belleza a mi alrededor, yo camino.
*Canto nocturno de los Navajo*

Edertasuna ene aitzinean, oinez noa ni.
Edertasuna ene gibelean, oinez noa ni.
Edertasuna ene gainean, oinez noa ni.
Edertasuna ene azpian, oinez noa ni.
Edertasuna ene inguruan, oinez noa ni.
*Navajoen gau-kanta*

Hubo un tiempo en el que el mundo nos hablaba y nosotros podíamos contestarle en su mismo idioma, porque era también el nuestro.

Hubo un tiempo en el que no creíamos ser más importantes que cualquier otro ser de este mundo.

Hubo un tiempo en el que estábamos unidos a nuestra propia naturaleza y no había fractura en nuestro interior.

Ese tiempo fue largo, mucho más largo que el que ahora llamamos nuestra civilización.

Sólo débiles ecos de ese estrato cada vez más deshecho, hundido y olvidado nos llegan ahora.

Esta exposición trata de reflejarlos.

Garai batean munduak hitz egiten zigun, eta guk bagenekien haren mintzairaz erantzuten, geurea ere bazelako.

Garai batean ez genuen uste mundu honetako beste zeinahi izaki baino garrantzitsuagoak ginenik.

Garai batean geure izatasunari lotuak ginen eta ez zen hausturarik gure baitan.

Denbora hura luzea izan zen, orain gure zibilizazioa deitzen dugun hori baino anitzez luzeagoa.

Geruza gero eta txikituago, hondoratuago eta ahantziago horren oihartzun motelak baizik ez zaizkigu heltzen orain.

Erakusketak oihartzun horiek islatu nahi ditu.




BASATI / 2021


SALI

El proyecto **BASATI/SALVAJE/WILD** es una intervención en el espacio de la que fuera capilla del antiguo hospital antes de convertirse en museo, y actúa como una imagen superpuesta a la original materializada en el edificio, su forma y los significados que se acumulan en su concepción. Tiene en cuenta el recorrido simbólico que ésta representa, así como los significados explícitos e implícitos en sus formas, la presencia de las imágenes devocionales y también los objetos que la componen, sin pretender competir o ignorarlos, pues su presencia es intrínseca al significado del lugar.

La intervención se centra en el hecho de que aquello que se considera sagrado plantea el misterio del significado de la relación entre la vida y la muerte, ambas presentes en la constitución de la capilla, en forma de agua a la entrada en el sotocoro y como enterramiento en el crucero respectivamente.

Desde el presente, la intervención plantea una evocación a formas simbólicas anteriores a las que ahora hay en la que fuera iglesia consagrada, y que se encontrarían superpuestas en un inconsciente colectivo muy profundamente solapadas por el sincretismo de las sucesivas olas civilizatorias, sin olvidar su presente realidad desacralizada.

**BASATI/SALVAJE/WILD** proiektua kapera batean egindako esku-hartzea da, museo bihurtu aurretik ospitale zaharrak zeukan kaperan egindakoa, hain zuzen. Jatorrizko irudiaren gainean ezarritako irudi gisa dihardu eta eraikinean, haren forman, eta haren kontzepzioan pilatutako esanahietan gauzatzen da. Proiektu honek aintzat hartzen du kaperaren ibilbide sinbolikoa, baita haren formen esanahi esplizitu eta inplizituak, deboziozko irudiak eta kapera eratzen duten objektuak ere; ez da saiatzen haiekin lehiatzen, ezta haiek baztertzen ere, haien presentzia tokiaren esanahiari dagokiolako barru-barrutik.

Esku-hartzearen erdiguneko egitatea da sakratutzat jotzen den horrek misterio bat dakarkigula, bizitzaren eta heriotzaren arteko harremanak duen esanahiaren misterioa, bi horiek kaperaren eraketan berean ageri direlarik; izan ere, hortxe daude koruazpiaren sarrerako uretan eta gurutzadurako ehorzketan, hurrenez hurren.

Gaurko egunetik abiatuta, esku-hartzeak forma sinboliko zaharrak dakartza gogora, eliza sagaratua izandako espazio honetan orain daudenen aurrekoak, alegia; forma sinboliko horiek inkontziente kolektiboan gainjarrita bide daude, oso sakon teilakatuak ondoz ondoko uholde zibilizatzaileen sinkretismoaren ondorioz, sakratutasuna kendu ondoko errealitatea, egungoa, ahantzi gabe.



JARDINES CELESTES / ZERUKO LORATEGIAK / 2019

**Sotocoro**

El sotocoro, que representa los pies del cuerpo de la planta del edificio, es una entrada que, como un nártex, supone un espacio previo al del resto de la nave central, más bajo y oscuro. Esta separación se acentúa con las imágenes de la pieza ***Fluxus*** que cuelgan del límite, permitiendo entrever el espacio grande, pero creando una barrera que el agua atraviesa y el visitante con ella. Estas imágenes desde el lado de la entrada actúan como una membrana que hay que atravesar, la del aspecto aparentemente caótico de la naturaleza, pero que desde el lado de la nave central son cascadas de agua. El material sobre el que están realizadas es doble y translúcido,

**Koruazpia**

Eraikinean, koruazpiak planoaren gorputzeko oinak irudikatzen ditu. Sarbide bat da; izan ere, baxuagoa eta ilunagoa izanik, habearte nagusiaren gainerako zatiaren aurreko espazioa da, nartex baten tankerakoa. Bereizketa hori ***Fluxus*** obraren irudiekin areagotzen da, zeinak mugan baitaude zintzilik; horrela, espazio handia sumatzen ahal dugu, baina hesi bat sortu da, urak eta, harekin batera, bisitariak zeharkatzen dutena. Irudi horiek, sarrerako aldetik, igaro beharreko mintz baten gisakoak dira, naturan itxuraz kaotikoa den alderdiaren mintza balira bezala, baina, habearte nagusiaren aldetik, ur-jauziak dira. Haien materiala bikoitza eta zeharrargia da, eta horrek areagotu

lo que acentúa la sensación de movilidad de lo poco estable o fijo. En este espacio previo, más oscuro, se encuentra la pieza de video de Elena Asíns que recrea conceptualmente la tragedia griega, ***Antígona***, con su mensaje violento, de relaciones nocivas, propio de la cultura griega de la que somos herederos, en contraposición a la pieza ***Perpetuum mobile (Physis)***, que muestra el eterno movimiento del agua, siempre igual y siempre distinto, en cuatro pantallas verticales. La referencia a la naturaleza aquí evita deliberadamente parajes míticos, destacados por su singularidad, inaccesibilidad, etc., como también el tipo de estética fotográfica cercana a la publicitaria que suele representarlos.

egiten du ezegonkorra edo ez-finkoa denaren mugikortasun itxura. Aurreko espazio ilunago horretan, Elena Asínsen bideoa dago, zeinak kontzeptualki birsortzen duen ***Antigona*** tragedia greziarra eta haren mezu bortitza, harreman kaltegarriei buruzkoa, kultura greziarrak berezko duena (gu, jakina, kultura horren oinordekoak gara). Horri kontrajarrita, ***Perpetuum mobile (Physis)*** pieza ageri da, zeinak uraren betiereko mugimendua erakusten baitu —beti berdina eta beti desberdina— goitik beherako lau pantailatan. Naturaren erreferentziak hemen nahita ekiditen ditu, bai paraje mitikoak (hagitz bereziak edo ezin iritsizkoak direnak), bai horiek irudikatzeko erabiltzen den argazki-estetika, publizitatetik hurbil dagoena.

**Nave central**

Desde la pila bautismal el agua aflora desde su base para convertirse en la pieza ***Manantial*** que establece su curso, surgiendo del suelo, para recorrer sinuosamente su camino hacia el plexo solar del cuerpo materializado en la forma de la lápida del enterramiento y rodeándola en el crucero.

La imagen simbólica del agua es muy anterior a la época cristiana, teniendo su origen en representaciones de lo sagrado de la vida en su acepción femenina. La serpiente encarna el mismo símbolo líquido y representa otra imagen de lo femenino, por su relación con el renovarse eterno de

**Habearte nagusia**

Bataiarriaren oinarritik ura jalgitzen da eta ***Iturburua*** izeneko pieza eratzen du. Horrek, lurzorutik aterata, sigi-saga egiten du bidea gorputzaren plexu solarreraino, zeina ehorzketaren hilarriak gorpuzten baitu, eta hura inguratu egiten du gurutzaduran.

Uraren irudi sinbolikoa kristautasuna baino askoz ere lehenagokoa da; haren jatorria dago bizitzaren ikuspegi femeninoaren sakratutasuna islatzeko irudikapenetan. Sugeak sinbolo likido hori bera mamitzen du, eta femeninotasunaren beste irudi bat islatzen, harremana duelako bizitzaren betiereko berriztapenarekin, ura horren haragitze garrantzitsuena zela uste

la vida, del que éste se consideraba su encarnación más importante. El conocido fenómeno de la *inversión patriarcal* por la que los símbolos e imágenes sagrados de las culturas dominadas eran despojados de su significado para ser ridiculizados o convertidos en imágenes del mal y del maligno, por resultar peligrosos para la credibilidad de la instauración del orden patriarcal, ha tergiversado su sentido original hasta hoy.

Esta intervención extrae de los estratos profundos del suelo de la memoria estos restos de imágenes para disponer una imagen superpuesta, como la de algo que se transparenta apenas bajo las que nos han sido transmitidas por nuestra historia.

Por el hueco que se abre paralelo al discurrir del agua en el suelo, se accede a la parte abierta de la nave central. Aquí, por encima del fluir del agua y siguiendo sus mismas curvas a una altura algo mayor que nuestras cabezas, sobrevuela ***Muda***, la muda de piel de la serpiente, como resto de una imagen simbólica que aún retiene su poder, aunque aparezca fantasmalmente, ocupando el centro de la nave. Se desliza por el espacio para rodear sobre su sombra del agua en el suelo, la lápida donde se encuentra la muerte. Sobre esta lápida, están los restos de una mujer del Epipaleolítico inhumada al fondo de una cueva en Aizpea (Aribe-Navarra), de aproximadamente 6.000 años y una de las más antiguas encontrada en Navarra, perteneciente a la colección

baitzen. Ezaguna da *alderantzikatze patriarkalaren* fenomenoa, zeinaren bidez kultura menderatuen sinbolo eta irudiei beren esanahia kentzen baitzitzaien irrigarri uzteko eta gaizkiaren eta deabruaren irudi bihurtzeko, arriskutsuan jartzen zutelako ordena patriarkalaren ezarpen sinesgarri bat. Bada, alderantzikatze horren bidez haren jatorrizko zentzua desitxuratu da gaur arte.

Esku-hartze honek oroimenaren geruza sakonetatik hartzen ditu irudi-hondar horiek, irudi gainjarri bat eratzeko, gure historiak transmititu dizkigun irudien azpian doi-doi ikusten den zerbaiten erakusgarri.

Badago hutsarte bat, urak lurrean daraman bidearekiko paraleloa dena, eta hartatik habearte nagusiaren alderdi irekira igarotzen gara. Hor, uraren bidearen gainean eta haren bihurgune berak eratuz, gure buruak baino goraxeago, ***Muda*** dago airean, suge-azalaren muda, irudi sinboliko baten aztarna gisa, habeartearen erdian kokaturik oraindik ere irudiaren indarra atxikitzen duela, itxura irreala badu ere. Espazioan irristatzen da eta hala hilarria, heriotzaren lekua, inguratzen du lurreko bere ur-itzalaren gainean. Hilarri horren gainean, Epipaleolitoko emakume baten gorpuzkiak daude, Museoaren bildumakoak direnak. Emakume hori leize baten alderdi sakonean ehortzi zuten Aizpean (Aribe, Nafarroa) orain dela 6.000 urte gutxi gorabehera, eta Nafarroan aurkitu diren ehorzketa zaharrenetako bat da. Airean dago




MUDA Y MANANTIAL/MUDA ETA ITURBURUA / 2021



BASATI / 2021

del Museo. Al encontrarse sostenida en el aire exactamente sobre la lápida del dignatario encargado de la construcción de la capilla, proyecta su sombra sobre él.

Las capillas laterales y el altar mayor se encuentran velados parcialmente por unos velos azul noche.

A ambos lados y en los paneles de las paredes, la pieza ***Tocado de chica (adolescente)*** y en el lado opuesto las de los ***Jardines Celestes*** *y* ***Montaña de plata, Caminante nocturno*** *y* ***Orión***, presentan también la oscuridad y la noche como elementos generadores de vida. La relación vida-muerte aparece como un misterio exento de la mitificación de la tortura y el sacrificio. Toda la intervención se centra en traer la atención al suelo, a la tierra, en contraposición con la verticalidad de la construcción, la cual sirve como contrapunto y contexto en el que la horizontalidad y el recuerdo del inframundo se reflejan.

zintzilik, kapera eraiki zuen jauntxoaren hilarriaren gainean, bere itzala hartan pausatzen duela.

Alboetako kaperak eta aldare nagusia zertxobait estalita daude gaueko urdinaren koloreko oihal batzuekin.

Bi aldeetan eta hormetako paneletan, ***Neska (nerabe) baten burukoa*** pieza eta, pareko aldean, ***Zeruko lorategiak*** eta ***Zilarrezko Mendia***, ***Gaueko bidaztia*** eta ***Orion*** daude. Horiek ere iluntasuna eta gaua irudikatzen dituzte bizitza sortzen duten elementuen gisan. Bizitzaren eta heriotzaren arteko harremana misterio gisa ageri da, eta misterio hori torturaren eta sakrifizioaren mitifikaziotik aske dago. Esku-hartze osoak lurzorura eta lurrera erakarri nahi du arreta, eraikinaren bertikaltasunari kontrajarrita. Bertikaltasun horrek, bestalde, kontrapuntua eta testuingurua ematen ditu, bertan azpimunduaren horizontaltasuna eta oroitzapena islatu daitezen.

**Sala 2.8 del Museo**

La obra ***Alma Mater*** se desplaza a la segunda planta del Museo, a la sala 2.8 donde se exhibe pintura mural gótica (siglo XIV). La pieza presenta un recorrido secuencial surgido de la propia configuración del objeto original que avanza y, a su vez, se cierra sobre sí mismo. Su carencia de estructura y su fragilidad manifiestan lo impermanente de conceptos tenidos por evidentes durante siglos, tales como el relato preferentemente

**Museoko 2.8 aretoa**

***Alma Mater*** obra Museoaren bigarren solairura eraman da, 2.8 aretora, non horma-pintura gotikoa (XIV. mendekoa) erakusten den. Piezak ibilbide sekuentzial bat du, jatorrizko objektuaren eraketatik beretik sortutakoa, aurrera egiten duena eta, aldi berean, bere baitan ixten dena. Haren hauskortasunak eta egiturarik ezak erakusten dute mendeetan zehar begi bistakotzat jo diren kontzeptuak ez direla betiko; esaterako, artearen


PERPETUUM MOBILE (PHYSIS) / 2021

masculino del arte, ejemplificado en algunas obras que lo definen, la noción de progreso o la cosificación de la naturaleza.

Toda la intervención **BASATI/ SALVAJE/WILD** invierte el orden de las imágenes-símbolos haciendo que la sombra de lo suprimido se proyecte sobre los elementos sólidos que son los que, hasta hoy, pueden realmente proyectar la suya en los que quedaron sepultados bajo los estratos del tiempo transcurrido desde el comienzo de lo que llamamos Civilización.

narrazio batez ere maskulinoa (artea obra batzuen bidez definitzen duena), aurrerabidearen nozioa edo natura gauza bihurtzea.

**BASATI/SALVAJE/WILD** esku-hartze osoak irudien eta sinboloen ordena alderantzikatzen du, ezabatu denaren itzala hedatzen baitu gaurko elementu sendoen gainean; izan ere, orain arte bakarrik egungo elementu horiek hedatu ahal izan dute beren itzala, Zibilizazio deitzen duguna sortu ondoren denbora-geruzen azpian geratutako elementuen gainean hedatu ere.

**Gentz del Valle** (Lekeitio, 1957) es doctora en Bellas Artes y profesora titular en la UPV/EHU. Ha publicado el ensayo *En ausencia del dibujo* (*El dibujo y su enseñanza tras la crisis de la Academia),* 2001.

Sus últimas exposiciones han tenido lugar en la sala de exposiciones Mentxu Gal (Irún, 2019), KMK (Donostia, 2017) y Galería Vanguardia (Bilbao, 2013).

Ha participado en exposiciones en el Museo de Bellas Artes (Bilbao), Museo Balenciaga (Getaria), Art Brussels, Art Cologne, La Neomudéjar (Madrid), Galería Vell Aöyama (Tokio) y Estampa (Madrid), entre otras.

Su obra se encuentra en las colecciones del Museo Artium (Vitoria-Gasteiz), Museo de Navarra (Pamplona) y colecciones particulares.

En instalaciones como *Perséfone no Habla*, *Montaña Interna,* o en la que aquí nos ocupa, *Basati/Salvaje/Wild*, plantea la relación de las imágenes internalizadas en nuestra cultura en contraposición al opacamiento del pasado que se encuentra bajo ellas. En *Perspectiva (Fuera de Lugar)* se cuestiona nuestra forma cultural de mirar, convirtiendo el espacio en una enorme cámara oscura, que obliga al espectador a atisbar a través de pequeños orificios en la pared, la cual hace las veces de frontera cerrada a las personas y aspectos no deseados en nuestro mundo desarrollado, desvelando su interesada unilateralidad y su agresividad.

**Gentz del Valle** (Lekeitio, 1957) Arte Ederretako doktorea eta EHUko irakasle titularra da. Honako saiakera hau argitaratu du: *En ausencia del dibujo, (El dibujo y su enseñanza tras la crisis de la Academia),* 2001.

Haren azken erakusketak izan dira, besteak beste, Irungo Mentxu Gal aretoan (2019), Donostiako KMKn (2017) eta Bilboko Galería Vanguardian (2013).

Hainbat erakusketatan parte hartu du inguru askotan: Arte Ederren Museoa (Bilbo), Balenciaga Museoa (Getaria), Art Brussels, Art Cologne, La Neomudejar (Madril), Vell Aöyama galeria (Tokio), Estampa (Madril), etab.

Haren obra Artium Museoan (Gasteiz) eta Nafarroako Museoan (Iruña) dago, erakunde horien bildumetan; baita partikularren bildumetan ere.

*Persefonek ez du hitz egiten* eta *Barne Mendia* instalazioetan, eta orain aurrean dugun *Basati/Salvaje/Wild* honetan erakusten du nola gure kulturan barneratu ditugun irudiek beren azpiko iragana ilundu eta lausotu duten. *Perspektiba (Lekuz kanpo)* obran zalantzan jartzen du gure begirada kulturala. Horretarako, espazioa ganbera ilun handi bihurtu, eta ikuslea behartzen du hormako zulotxo batzuetatik begiratu edo sumatzera. Horma hori muga bat da eta bidea ixten die gure mundu garatuak baztertu nahi dituen pertsona eta alderdiei; horrela, agerian geratzen da interesatua, aldebakarrekoa eta oldarkorra dela.



BASATI / 2021



ORIÓN / ORION / 2019



ALMA MATER / 2017




LÁPIDA DE DON PEDRO DE MONREAL/PEDRO DE MONREAL JAUNAREN HILARRIA / 1557

RESTOS ÓSEOS DE MUJER Y AJUAR/ EMAKUME-HEZURKIAK ETA HILOBIRATZE-HATUAK / EPIPALEOLÍTICO, 4.600 A.C./EPIPALEOLITOA, K.A. 4.600

OBRAS EXPUESTAS

ERAKUSKETAKO OBRAK

**BASATI**
2021

**Fluxus**
Técnica mixta sobre poliéster
Medidas: conjunto de varias piezas de 200 x 90 cm

**Muda**
Tela e hilo
Medidas variables

**Manantial**
Cristal sobre papel
Medidas variables

**Restos óseos de mujer y ajuar**
Primera inhumación femenina de la prehistoria navarra. Se trata de una mujer de aproximadamente 30 años.
Epipaleolítico, 4.600 a. C.
Aizpea (Aribe-Navarra)
Museo de Navarra. Pamplona

**Lápida de don Pedro de Monreal**
1557
Mármol

**PERPETUUM MOBILE** (PHYSIS)
2021
Vídeo
Duración: 16 clips de 10 min
Sin sonido

**TOCADO DE CHICA** (ADOLESCENTE)
2005
Bronce, tela, hilo, plástico
Medidas: cabeza 22 x 16 cm / con tocado 145 x 155 cm

**JARDINES CELESTES**
2019
Técnica mixta sobre papel
Medidas: 138 x 78 cm

**Jardín celeste**
**Montaña de plata**
**Jardín celeste**
**Caminante nocturno**
**Jardín celeste**
**Orión**

**BASATI**
2021

**Fluxus**
Teknika mistoa poliester gainean
Neurriak: 200 x 90 cm-ko piezen multzoa

**Muda**
Ehuna eta haria
Neurri aldagarriak

**Iturburua**
Kristala paper gainean
Neurri aldagarriak

**Emakume-hezurkiak eta hilobiratze-hatuak**
Emakumezko baten ehorzketarik antzinakoena Nafarroako historiaurrean. 30 urte inguruko emakume bat da.
Epipaleolitoa, K.a. 4.600
Aizpea (Aribe, Nafarroa)
Nafarroako Museoa. Iruña

**Pedro de monreal jaunaren hilarria**
1557
Marmola

**PERPETUUM MOBILE** (PHYSIS)
2021
Bideoa
Iraupena: 10 minutuko 16 klip
Soinurik gabe

**NESKA** (NERABE) **BATEN BURUKOA**
2005
Brontzea, ehuna, haria, plastikoa
Neurriak: burua 22 x 16 cm / burukoarekin 145 x 155 cm

**ZERUKO LORATEGIAK**
2019
Teknika mistoa paper gainean
Neurriak: 138 x 78 cm

**Zeruko lorategia**
**Zilarrezko mendia**
**Zeruko lorategia**
**Gaueko bidaztia**
**Zeruko lorategia**
**Orion**



**ALMA MATER**
2017
Tela, tinta, alfileres y madera
Medidas: 7 piezas de 200 x 60 cm
Museo de Navarra. Pamplona

**ELENA ASINS**
ANTÍGONA (2ª y 3ª PARTE)
2015
Vídeo
Duración: 1 h, 12 m y 07 s
Sonido: Sonido estéreo
Color: Blanco y negro
Museo Nacional Centro de Arte Reina Sofía, Madrid

**ALMA MATER**
2017
Ehuna, tindua, orratzak eta zura
Neurriak: 200 x 60 cm-ko 7 pieza
Nafarroako Museoa. Iruña

**ELENA ASINS**
ANTIGONA (2. eta 3. PARTEAK)
2015
Bideoa
Iraupena: ordu bat, 12 m eta 7 s
Soinua: estereofonikoa
Kolorea: zuri-beltzean
Reina Sofía Arte Zentroa Museo Nazionala, Madril

DE NAVARRA MUSEO NAFARROAKO A

Gobierno de Navarra Nafarroako Gobernua

AGENDA 2030